

## ELHEKETA : Aste hunkako ellepidea.

1. Piarres zer zen?
2. Piarresek zer zion?
3. Zertako grinatura zen Piarresen ama?

(II)

I

## Ama Semeak

Ilhun-nabarrean, keetara<sup>1</sup> joanik, zenuari, hedoikeri<sup>2</sup> beha eta beha eman zen Piarres. Mendcaletik heldu, zirurikan<sup>3</sup> iragaiten zitzaitzkon lanho ilhunak, etxe-kaskoa herrestaka hunkitzen zutela. Kurlinka<sup>4</sup> erlastu<sup>5</sup> batzu inguruka sumatzen zituen, han, Olhasoko sorhoctan, dena marraka<sup>6</sup> eta intzire. Eta hirri bat ethorri zitzaiion Piarresi ezpaineratarat, begiak argi argia egiten zitzatzola. "Guarda gutti ikusiren diagu gaur, erreka horietan!..."

Etxerat buruz itzuli zenean, ama, hain maite zuen bere ama, hanxet zuen, atxaren ondoan, hari begira hora ere:

—Zer bada, Piarres, hor gaindi behar othe zaitugu gau huntan 'no? Grinaz? hilarazi nahi nauzu beraz, haurra?

—Hilarazi? Grinaz? Ez balinba!... Zertaz behar zira grinatu, ama? Behin oraino ez naukate Senpereko guardaño horick beren aztapparetara bildurik?

—Ez bildurik? Hurren bildurik ez othe zaituzte izan, iragan egun batez?

—Bai, hala da, ama, bainan ene gerriko higatuxe<sup>8</sup> bat uzi diotet eskuetan, eta deus ez bertzerik. Aingira harrien artetik bezala, iragan nitzaiole bi othe mustuken<sup>9</sup> artetik. Eta usle dut, gibelarakoan, othe adar horietatik batek zaflako eta sistako ona eman diozkan garaztar guardari.

—Bethi bardin izanen zaizkit beraz, Piarres? Bethi bardin axola gabea? Bainan, kontu emazu zure gerriko azkarragoa ez dadien gertha bertze aldi batez, eta orduan, ahalkea diteke guretzat.

—Ahalkea? Eta zertako, ama? Baditeke kontrabandan ari diren guziak ez diren aberasten. Bainan bat ez dakit kontrabanda hortan rea galdurik. Egia edo gezurra, aditua ere dut. Eskual-herriko auzapez<sup>10</sup> edo herriko gizon bat baino gehiago hautatu dela, kontrabandan ari zirela orok jakina batik. Ez, ez ama, kontrabandista ez da ohoin bat, hurbilik ere. Zaude deskantsu. Beren puskak edo kabalak<sup>11</sup> ongi pagaturik, nehorri makurrik ekarri gabe, beren irabazia ongi bereizen<sup>12</sup> dute egundainoko kontrabandistek.

—Zoazi eta errozute hori guarden aitzindarieri...

—Guarden aitzindarieri? Guk hazten ditugu eta guardak eta heien aitzindariak! Zer egin ~~lortu~~<sup>13</sup> gu gabe? Bertze lan bati lotzea lukete, eta, segur, ama, lan hori ez lezaketela laborariena har edo kontrabandista! Deskantsu begozi beraz guardatxo horiek. Gure beharra badute horick, guk horien baino gehiago, eta gobernioguziak horien beharretan izaiten ohi dire heiti, bozkatzeak heldu diren guzian. Muthil hoberik ez dute gobernioko gizonek...

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. egiten zitzatzola
32. othe zaitugu
33. iragan nitzaiole
34. nahi nauzu

## 31 IZAN. Régime indirect Ind. Imparf.

Hek zoren = ils étaient	= ils m'étaient
Hek (eux) zitzatzekan = ils n'étaient	
zitzatzekizun = ils vous étaient	
zitzatzekien = ils lui étaient	
zitzatzekiegun = ils nous étaient	
zitzatzekizuen = ils vous étaient	
zitzatzekien = ils leur étaient	

## 32. UKAN. Conjugaison transitive à complément direct = Tu = vous.

Indicatif = Présent.	
Nik zaitut = je vous ai	
Harek zaitu = il vous a	
Guk zaitugu = nous vous avons	
Heiek zaituzte = ils vous ont	

	Imparfait
Nik zintudan = je vous avais	
Harek zintuen = il vous avait	
Guk zintugun = nous vous avions	
Heiek zintuzten = ils vous avaient	

## 33 ITAN. Régime Indirect

Indic. Présent - Singulier  
Ni manz = je suis

Ni mitzaizu	= je vous suis
mitzaio	= je lui suis
mitzaizue	= je vous suis
mitzaile (nitzaiole)	= je leur suis